



A HAPO BERRIKUSKETARAKO ABIAPUNTUA

1 HAPO BERRIKUSKETAREN EGITURA

1.1 AURREKARIAK

Vitoria-Gasteizko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO), Foru Aldundiaz behin betiko onartu zen abenduaren 27ko 135/2000 Foru Dekretuan. Araudia 2001.urteko otsailaren 19an ALHAO 21. zenbakian kaleratu zen.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Alkatetzak, 2013.urteko urtarrilak 25eko Dekretuaren bidez (ebazpena 2008.urteko urtarrilaren 18an izan zen), Vitoria-Gasteizko HAPOaren berrikusketa idazketaren aurreko ikerketak eta Herritarren Parte Hartze Programa onartu ziren. Udalerriko Zerbitzu Teknikoak berrikusketaren idazketa egin zuten aurrekari lan hauen erantzuleak dira.

Ebazpen honetan gainera, eta ekainak 30eko, 2/2006 Euskal Herriko Lurzoru Legearen 90.artikuluaren aipatzen den bezala, administrazio organo eta administrazio publiko guztien parte hartzea eta informazioa eskatu zen. Aldi berean, Hiriaren HAPO berrirako lan hoberena aurkezteko txostenak eskatu ziren.

Aipatutako **Aldez Aurreko Ikerketak**, udalerrriaren web gunean kontsulta daitezke, **2009.urtean** zehar egin ziren, fase ezberdinetan, parte hartze handiarekin eta udal zerbitzuen osotasunean lagunduak, ekimen zehatzen proposamenekin Plan Orokorren Berrikusketa sustatzeko.

Aldez aurreko ikerketetan landu, aztertu, eztabaidatu eta ondorioak atera ziren hurrengo gaietatik:

1. Kontutan hartu beharreko alderdi juridikoak lege esparruan oinarrituz, lurralde antolamenduko tresnak, indarrean dagoen hirigintza plangintza, landa nukleoaren inbentarioa, Eratzun Berdea eta hurrengo gaiei buruzko arau sektorialak: urak, mendiak, ondarea, landa ibilbideak eta ingurumenari buruzko plan estrategikoak.
2. Ingurune Fisikoa hurrengo proposamenekin: Paisaiaren Plan Berezia; Eratzun Berdea, Zuzkidurak eta ekipamenduak, landa nukleoaren herri ezberdinen antolamendu gidalerroak.
3. Demografiaren errealitatearen analisiarekin, biztanleri egiturekin, espazio banaketarekin eta biztanleri dinamikarekin batera ezinbesteko tokia okupatu zuen.
4. Ekipamenduak zehaztasunez aztertu ziren hurrengo kategorien arabera: osasuna, irakaskuntza maila guztien arabera hezkuntza ekipamenduak, gizarte ongizateari dagozkionak (batasuneko akzioak, oinarrizko zerbitzu sozialak, larrialdi sozialen udalerriko zerbitzua, gizarteratze, haurtzarora, familia eta hirugarren adina), kirol eta kultur ekipamenduak ahaztu barik.
5. Ekonomia-jarduera informazio bilketa, bilduma eta analisi zehatz bat egin zen, dagokien administrazio publikoen harreman espezifikoak barne.



6. Ekonomiaren parte bezala Merkataritza Jarduera egongo da, Hiriaren egitura ekonomikoan eta sozialen pisu handia izango du alde aurreko ikasketetan aipatzen den bezala.
7. Alderdi urbanistikoak, lurralde errealitatearen eta hiri analisiarekin, kalifikazio ezberdineko plangintza eta hiriaren espazio berezituak (hiriaren erdialdea, biztanleriaren toki erakunde txikiak, lurzoru industrialak...).
8. Azpiegituren komunikazioa, egungo desplazamenduan eta mugikortasun sozialean eragin berezia izanik.
9. Zerbitzu azpiegiturak (telekomunikazio sareak, hornikuntza, saneamendua, elektrikoa, gasarenak, hondakinak eta aukerako energiak).
10. Zabalera eta garrantzizko xehetasunarekin landutako kultura Ondarea. Zehaztasunez katalogo batean batzen dena (Ondare Arkitektonikoa; Ondare Arkeologikoa, Hirigune Historikoa, etb...).

Aldez aurreko ikerketa hauen ondoren eta parte hartze mahai teknikoak akten analisisien ondoren, **2013.urtean** HAPOaren Berrikusketa Bulego Teknikoak, udalbatzan sortutako **Plan Orokorraren Berrikuspen Txosten Politikoa** aurkeztu zuen. Analisi dokumentu ezberdinak dira, bederatzi koadernoetan egituratuak izan ziren:

1. Lurralde eredua eta lurzoru naturala.
2. Udallerriaren mugak eta hiri hazkundearen mugak
3. Egungo plan orokorraren garapen egoera: Lurzoru urbanizagarriaren sektoreak, hiri lurzoruan programatuta. 1.ngo Taldea.
4. Koadernoak- Egungo plan orokorraren garapen egoera: Lurzoru urbanizagarriaren sektoreak Toki-Erakunde Txikian programatuta. 2. Taldea.
5. Koadernoak- Bizitegi auzoen sozio-hirigintza analisisien fitxak.
6. Bizitegi auzoen karakterizazioa eta analisia: Barneko auzoak vs kanpoko auzoak
7. Toki-Erakunde Txikiko sozio-hirigintza analisi fitxak.
8. Toki-Erakunde Txikiko analisia eta karakterizazioa.
9. Lurzoru industrialak.

2013.urtean zehar **herritarren parte-hartze prozesua ("Berrasmatu")** egin zen. Prozesuaren emaitzak udallerriaren web gunean aurkitu dezakegu eta **2015.urteko urrian, Plan Orokorraren Berrikusketaren Txostenak** hurrengo balioztatu egin zituen: antolamendu orokorreko helburuen dokumentua, ingurumen eta ekonomia helburuak eta helburu sozialak, azken hauek udallerriaren sail ezberdinen bitartez eginda eta enpresen zein udallerriko organismo autonomoen parte hartzearekin.

2016.urteko maiatzaren 31an, HAPOaren Berrikusketa Aurrerapena egiteko "HAPOaren aurrerapenerako alde aurreko proposamenei buruzko informazioa eta laburpena" ikerketa aurkeztu zen. Hirigintza Sailak landua (HAPOaren berrikusketa bulegoa) eta Berrikusketaren Hitzaldi Politikoan aurkeztua, prozesu luze baten ondoren egindako eguneraketaren ondoren eta 2008.urteko urtarrilaren 18an Alkatetzaren ebazpenarekin. Hurrengo "koadernoak" bidez egituratu zen:



1. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Plan Orokorraren Funtsezko Helburuak; Ingurumen, Ekonomia eta Gizarte Arlokoak.
2. Hiriko Ekipamenduak.
3. Hiri Garapen Estrategia kontrolatua: Bizitegi lurzorua Toki-Erakunde Txikian.
4. Zelan lotu finkatutako hiria birdentsifikazio hiriarekin.
5. Zelan lotu finkatutako hiria birdentsifikazio hiriarekin.
6. Lurzoru Higiezinaren antolamendua.
7. Ekonomia Jarduerarako Proposamenak.
8. Garraio eta higikortasun azpiegiturak.

2016.urteko ekainean, Aurrerapenean egindako proposamenei buruzko proposamenetan oinarrituta eta Plan Orokorrei buruzkoak **profesional eta espezialistekin parte hartze fase bat** egin zen. Prozesuaren emaitzak *Berrasmatu* izenarekin aurkitu dezakegu udalaren webgunean eta biztanleriaren parte hartzerako HAPOan sortu zena.

2017.urteko maiatzaren 12ko sesioa ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak TRION-USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO S.L.P. eta EKAIN S.A. kabineteei esleitu zien kontratazio publikoa, VITORIA-GASTEIZKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSKETAREN AHOLKULARITZA ETA IDAZKETA lanetan.

Kontratuko baldintza guztien betetzearen ondoren, 2017.urteko uztailean kontratua sinatu zen eta lanak hasi ziren. Gaur egungo fasea Aurrerapen agiria da.

1.2 HAPOAREN ETORKIZUNA ETA EREMUA

1.2.1 APLIKAZIO EREMUA

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa bere 59.artikuluari eta hurrengoetan aurreikusten den bezala, HAPOak arau izaera daukan tresna bat da eta aplikazio eremu bezala Vitoria-Gasteizko udal-mugarte osoa dauka. HAPOak bere xedapen orokorreko 1.00.02 artikuluan, bere "lurralde eremua" definitzen du hurrengo ezarritz:

"Aplikazio eremua Vitoria-Gasteizko udalerrira izango da, Vitoria-Gasteizko hiri nukleo nagusia eta 63 Toki-Erakunde Txiki osatzen dute."

Egia esan ez dira toki erakunde txikiak lurraldea osatzen baizik eta bere lurralde eremuak, Araba Lurralde Historikoaren kontzejuak martxoak 20ko 11/1995 Foru Arauetan aipatzen direnak "kontzeju-mugarte" izendatzen dira (2.artikulua) eta bere lehiak betetzen dituzte. Lurralde eremuaren definizioan lurraldean zehar dauden nukleoei buruz hitz egiten da.

Nukleo nagusiarekin batera aipatutako Vitoria-Gasteizko udalerraren 63 entitatek udal-mugartea osatzen dute. Hurrengoak dira:



TOKI-ERAKUNDE TXIKIAK				
Aberasturi	Aztegieta	Gometxa	Mendiguren	Zerio
Abetxuko	Berrostegieta	Gereña	Mendiola	Zuhatzu
Ali	Betoño	Hueto Abajo-Oto Barren	Mendoza	Zumeltzu
Amarita	Bolibar	Hueto Arriba-Oto Goien	Miñao	
Andollu	Gaztelu	Ilarratza	Miñao Gutxia	
Antezana	Krispiña	Jungitu	Monasterioguren	
Arangiz	Elorriaga	Lasarte	Oreitia	
Arkauti	Eskibel	Legarda	Otazu	
Aretxabaleta	Estarrona	Lermanda	Retana	
Argandoña	Foronda	Lopidana	Subillana Gasteiz	
Ariniz	Gamarra Nagusia	Lubiano	Uribarri Nagusia	
Arkaia	Gamarra Menor	Mandojana	Uribarri-Arratzua	
Armentia	Gamiz	Margarita	Uribarri-Dibiña	
Artatza Foronda	Gardelegi	Martioda	Villafranca	
Askartza	Gobeo	Matauko	Ihurre	

1.2.2 HAPO BERRIKUSPENAREN EGOKITASUNA ETA AUKERA

Vitoria-Gasteizko Plan Orokorra onartu zenetik hainbat aldaketa egon dira, indarrean sartu zen otsailak 25eko 143/2003 Hitzarmena publikatu ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen kontseiluan (ALHAO 37zk. 2003ko martxoaren 31a); 1212/2005 Diputatuen kontseiluko Foru hitzarmenaren bidez, abenduaren 28koa, HAPOaren testu bategina onartzen da udalerrriaren Toki-Erakunde Txikiko bizitegi lurzoruari dagokionez (ALHAO 7zk, 2006.urteko urtarrilak 18).

Berrikusketa egiteko arrazoiak (1.00.07 artikuluan) aurreikusten dira, besteak beste, indarrean sartu zenetik igaro diren zortzi urteak, ordutik eman diren aldaketa sozio-ekonomikoak, antolamendu irizpide berriak udalbatzan egokiak kontsideratzen direlarik, esparru juridiko-urbanistikoan aldaketa nabarmengarriak gertatu direnean.

Gaur egun indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Plan Orokorrak, udalerrriaren antolamendu osoko instrumentua osatzen du eta 2/2006 Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzako Legeari ez da egokitu (EHAA, 138zk. 2006ko uztailak 20) 2006ko irailaren 21ean indarrean sartu zen, bere azken bosgarren xedapenari dagokionez. Aurreikuspenean, prozesatzean eta onespenean kontuan hartu beharreko lehen arazoa 2006ko testu juridikoari egokitu beharra dago. 2010eko urtarrilaren 25ean, hala ere, Tokiko erakunde txikientzako sektore urbanizagarriari dagokienez eskatzen dituzten eraikuntza-mugei dagokienez (Arabako Batzar Orokorrak martxoaren 20an 11/1995 Foru Arauarekin bat etortzen den kontzejuaren izendapena – ALHAO 38zk. 1995.urteko martxoak 31); edo Salburua eta Zabalganako aldaketa partzialak, 2/2006 Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa Legean.

Honengatik, beharrezkoa eta egokia egiten da araudi legalaren berrikuspen bat, hamabost urteko muga tenporala ezartzen da, **2/2006 Legea indarrean sartu denetik eta aurreko**



epearen luzapenaren arabera. 2/2006 Legea, urriaren 2koa onartua, aipatutako Euskal Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen aldaketarekin. **2021eko irailaren 21era arte egongo lirateke, "plan orokor guztiak" Euskal Herriko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen arabera egokituta,** arriskua beti aldaketa puntualak izan daitezke behin aipatutako epea igaro ondoren eta Euskal Herriko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 103.4 artikuluan aipatzen den bezala. Dagoeneko epea betetzeko ia lau urteren buruan dago baimendutako data, baina kontutan hartu behar dugu Berrikuste objektua daukan Plan Orokorren onarpen eta tramitazioen gorabeherak aztertzerakoan, hasierako agiriaren onarpena 1998.urteko abenduaren 14an egin zen, hala ere, ez zen indarrean sartu 2003.urteko martxoaren 31rarte.

Gainera aipatutako mandatuan, batez ere, prozedura osoan eta Plan Orokorreko eduki arautzailean eragina izan duena, Lege Aginduak aldaketa batzuk ikusi ditu (egunerapenak egoki bada) sakonera handikoak, indarrean dagoen Plan Orokorrean kontuan hartuta nabarmen aldatu dela. Ezartzen diren ondorengo estatu mailako legeak, bereziki, martxoaren 20ko Auzitegi konstituzional 61/1997 epaiketa ondoren, apirilak 11kako 6/1998 Legearen xedapenarekin (EAO 89zk. apirilak 14); maiatzaren 28ko 8/2007 oinarri Legea (EAO 128zk. Maiatzak 29); ekainak 20ko, 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Testu Bategina (EAO 154 zk. ekainak 26), ekainak 26ko 8/2013 Legea, birgaitze eta hiriaren birsorkuntzari buruzkoa (EAO 1563 zk. ekainak 27koa), marko juridiko orokor berri bat sortu du **urriak 30, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen duena eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen Testu Bateginan onartzen duena** (EAO 261zk. 2015.urteko urriaren 31).

Jabetzako egoeraren zehaztasunaz gain, arreta berezia merezi du, gure ulermenean, pixkanaka betebeharrak betetze aldera eskubideen eskuratzea; lurzoruaren ondare balioaren eta hirigintza sailkapenaren arteko bereizketa; lurzoruaren oinarritzko bi egoeren ezarpenean (21.artikulua), landa lurzoru, lurzoru urbanizagarria eta bere balorazio arauak, urriak 24ko 1.492/2011 Errege Dekretuarekin osagarriak eta Lurzoru Legearen balorazioak onartzearen arrazoa (EAO 270zk. 2011kako azaroak 9). Hirigintzako teknikak eremu autonomikoaren gaitasunaren atribuzioari lotuak geratzen dira, hiri lurzoruen (finkatuak eta finkatugabeak), urbanizagarrien (sektorizatuak eta ez sektorizatuak) eta urbanizaezinen (landa nukleoak barne) finkapena Plan Orokorren arabera egingo dira eta Euskal Herriko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legean agertzen direnak.

Auzitegi konstituzionala bere irailak 11kako 141/2014 epaiketan, 8/2007 Legearen analisi konstituzionalari dagokiona eta bere 2/2008 Testu Bategina ezartzen duen bezala, arau hauengatik ezarritako eszenatoki juridiko berria (guztiz konstituzionala), lurzoru jabetasunaren eta balorazioaren arabera, azpimarratuz beste esanen artean **"Legegilearen gaur egungo aukera, lurzoruaren sailkapenaren balorazioa behin betiko bereizte aldera, beste alde batetik, Zuzenbidearen Motibazioen Azterketan azaldutakoaren arabera, espekulazioa arintzeko, konstituzioko aginduaren arabera ex 47.art CE, eta balorazioa bete "dagoenaren arabera" eta ez "planak esaten duena etorkizunean egon ahal denaren arabera" (F.J.º9), oinarri bereborean gehituz, bere aukera hiriko jabetza kontzeptu legegilearen arabera, "ius aedificandi" ez da eskubidearen hasierako edukien osagai integral bat, betebeharr urbanistiko korrelatiboen betetze mailaren arabera lortzen da", eraikigarritasunaren ondare bezala izendatzen dena, hori gauzatzeko modu eraginkorrean**



bakarrik gauzaten da eta, edozein kasutan, betebeharrak betetzea eta dagokion erregimenaren karguak ezabatzea da.

Hortaz, Lurzoruaren balorazioa landa egoeraren arabera egiten da eta hirigintza itxaropena bakarrik kontutan izango da lurzoru urbanizagarria aldaketa bat izan duenean eta Auzitegi gorenean baieztatzen denean, 2014ko urriak 27ko epaiketa (R. 5840 eta 174/2012 kasazio errekurtsioa, 10^o oinarri juridikoa) eta 2015.urteko maiatzak 7 (R. 1729 eta 615/2013 kasazio errekurtsioa, 2^o oinarri juridikoa) besteak beste, aipatutako konstituzionalaren arabera 141/2014.

Beraz, eszenatoki oso ezberdinean aurkitzen gara, indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko HAPOa sortu zuenarekin konparatuz. Euskadiko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 2006.urteko irailean indarrean sartu zenetik, bost aldaketa izan ditu azaroaren 28ko 11/2008 Legeen eraginez, Erkidegoaren partaidetza hiri ekintzako soberakinaren arabera (EHAA 238zk. abenduaren 12koa), aldi berean aldatu egin zena ekainak 18ko, etxebizitza 3/215 Legeagatik (EHAA 119zk, 2015.urteko ekainak 26), eraikuntza edo hazkundea udaleko parte hartzea %15an zehazten dute. 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaitza Politikoa eta 2/2012 Legea, apirilaren 23koa, 2006/123/CE zuzendaritzara egokitu, ikuskapenak, jarduerak kontrolatzea eta lizentzietan dagokionez, Aurretik komunikazio prozedura ezartzean, lan edo jardura jakin batzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren bakarrak dira, eta aipatutako 2/2014 legea, urriaren 2koa, plangintza orokorraren epea zabaltzeko 2/2006 Legeko araudiei.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren dekretuak 2/2006 Legearen garapenean idatzi dira. **Ekainak 3ko 105/2008 Dekretuari buruz ari gara, premiazko neurriena (EHAA 118zk. ekainak 28koa) eta 123/2012 Dekretuaren hirigintza estandarrei buruzkoak (EHAA 143zk. uztailak 23koa)**, azken hau eraikigarritasunari mugak jartzen dizkio, zuzkidurakoak, babes publikoko etxebizitzakoak eta zuzkidura ostatukoak hiri lurzoruetan eta urbanizagarrietan, Lurzoruaren Udal ondarea tresna edo kudeaketa instrumentu bezala proposatuz, estandar edo gainazal minimo hauek fisikoki beste eremuetan jarri ezin direnak (bai sistema orokorretan eta bai tokiko sistemetan). Gure ikuspuntutik, zehaztapen hauen balio handia jaso dezakete, lurzoru berrien ez kolonizazioaren kasuan eta erabilpenaren areagotzea (saillapena eta kalifikazioan) sailkatuetan eta kalifikatuetan. Hiria barrurantz hasi behar da bere iraunkortasuna eta kalitatea handituz (ekipamenduak, espazioak...).

Guztiarekin batera, hirigune izendatu genezakeen araudietatik sortzen den guztia, bereizgarritasun berezia kontsideratu behar da, udalerriko mugan eta bere ingurunean araudi sektoriala, garrantzia izango duena prozedurazko ikuspuntutik bere edukieratik. Hurrengo ataletan, Lurralde Antolamenduko Gidaliburuen edukietan agertzen dira, ingurumen erregulazioaren intzidentzia, bereziki 21/2013 Legea, abenduaren 9koa (EAO, 296.zk. abenduak 11) Plan Orokor honen ingurumen ebaluazio estrategikoa erregulatu du (17.artikulua eta hurrengoak). Hasierako eskaera egin behar da, kontsultak ingurumenaren azterketa estrategikoa, informazio publikoa, azterketa teknikoa eta Ingurumenaren Adierazpen Integratua prestatzea. 37/2003 Legea azaroaren 17koa, zaratarekiko babesa (EAO 276.zk. azaroaren 18a) eta 213/2012 Dekretua urriaren 16koa kutsadura akustikoari buruzkoa (EHAA 222 zk. 2012.urteko azaroak 16). Baliabide naturalen babesa (ura, basoak, lurzoru, airea). 1990.urteko uztailak 3ko legearen Ondare Kulturala (EHAA 157zk. abuztuak 6) kalifikatutako ondasunekin eta inbentariatuak daudenak. Etxebizitzaren eskubide subjektiboa



eta Euskadiko Etxebizitzen zuzkidura ostatuak ekainak 18ko 3/2015 Legearena (EHAA 119zk. 2015.urteko ekainak 26). Hezkuntza. Osasuna. Garraioak eta azpiegiturak (uztailak 7ko 21/2003 Segurtasun Legea – EAO 162zk. uztailak 8- Vitoria-Gasteizen eragina izan duena Forondako aireportutik gertu). Errepideak, 20/1190 Foru Araudiarekin, Ekainak 28ekoa (EHAA 147zk. abenduaren 24koa), segurtasun eta defentsari buruzkoa bere ondaretik 7/2015 Lege Errege Dekretua ebaluatuko ditu txostenean agertzen diren lurralde eta hirigintza antolamendu tresnak (osagarritzko bigarren xedapena).

1.2.3 HAPOAREN EDUKIA

HAPOaren edukia **benetazko atala** (besteak beste 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari burzko 61.artikuluaren aurreikusita) eta atal dokumentala bereizten ditu (lege berberako 62.artikuluaren). Lehenengoan, **udalerrriaren antolamendu egitura osoa** darama (55.artikuluaren), plangintza orokorraren irudi berberaren arabera bakarrik aldakorra eta hiri bilakaeraren estrategia eta lurzoruaren okupazioa irudikatzen du, hirigintza garapenaren sekuentzia zehaztuz baldintza zehatzak ezarriz hiri bilbearen sarrera betetzeko. Lehentasunezko oinarritzko ordena definituz integratutako jarduketarako eta bere programazioarako baldintzak asetzeko.

2/2006 Testu legalaren 53.artikuluaren arabera, hirigintza antolamendu egiturak Plan Orokorraren edukiera definitzen du eta hurrengo zehaztapenak aipatzen ditu:

1. Orokorrean:

- a) Udal-mugarte osoan, hiri-bilakaerarako eta lurzoruaren okupaziorako estrategia zehaztea.
- b) Udal-mugarte osoan, lurzoru hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin modura sailkatzea, eta lurzoru urbanizagarrian lurzoru sektorizatua eta lurzoru sektorizatugabea bereiztea.
- c) Lurzoruaren kalifikazio globala egitea. Hartarako, zonatan zatituko da lurzoru guztia, eta, gainera, erabilera publikoko eta erabilera pribatuko zonak bereiziko dira.
- d) Epeak finkatzea garapeneko plangintza egin eta onartzeko eta lurzoruaren programazioa egiteko.
- e) Jarraibideak ezartzea ingurumena babesteko, natura zaintzeko eta paisaia elementu naturalak eta artifizialak –kultura-ondareari dagokionak, bereziki-defenditzeko.
- f) Sistema orokorren sarea zehaztea, hirigintzaren garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia ziurtatzeko modukoa, erabilera kolektiboko espazioen kalitatea eta funtzionaltasuna bermatuta. Halaber, sistema horiek egikaritze-eremu jakinei lotzea edo, hala badagokio, haietan sartzea, sistemok eskuratzeko eta, antolamendu zehatzeko eremu bat edo batzuk garatzeko funtzionalki beharrezkoak direnean, sistemok egikaritzeko eta kostua onartzeko ere bai.
- g) Zehaztapenak finkatzea babes ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzen gutxienerako estandarrak eta kopuruak betetzen direla bermatzeko eta zuzkidura-egoitzetarako erreserbak egiteko.
- h) Irizpideak finkatzea lurzoruak, areak edo sektoreak sailkatzeko espazio-eremuen mugapena xeheki berraztertu ahal izateko horrek, ordea, ez du ekarriko egiturazko



antolamendua aldatzerik—. Hartarako, parametro eta inguruabar objektiboak finkatuko dira, errealitate fisikoari egokitzeko eta plan orokorraren helburuak errespetatzeko.

2. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuan, gainera:

- a) Lurzoru mota horien perimetroa mugatzea.
- b) Hiri-lurzoruan, plan berezi bidez antolatuko diren areak zehaztea; eta lurzoru-urbanizagarrian, berriz, plan partzial bidez antolatuko diren sektoreak zehaztea.
- a) Aurreikusten diren hirigintza-eraikigarritasuna, erabilera berezia eta erabilera bateragarriak finkatzea, azken horiei dagokien gehieneko eraikigarritasun-ehunekoa ere adierazita.
- b) Tokiko sistemen oinarrizko ezaugarriak eta urbanizazioaren gutxieneko baldintzak zehaztea. Lurzoru urbanizagarrien kasurako, lehenagotik dauden azpiegiturekin lotzea eta azpiegiturok sendotzea ere sartuko da.

3. Lurzoru urbanizagarri sektorizatu gabeen:

- a) Sektoreak mugatzeko gutxieneko irizpideak finkatzea. Hala badagokio, egin daitezkeen jarduketan gehieneko eta gutxieneko magnitudeak adieraziko dira.
- b) Azpiegiturekiko eta lehendik diren edo aurreikusita dauden sistema orokorren sarearekiko loturak zehaztea.
- c) Erabilera bateraezinak edo debekatuak esleitzea, bai eta baimendu edo ezar litezkeen erabilerak ere.
- d) Hala badagokio, lurzoru-erreserbak mugatzea, lurzoru-ondare publikoan sartzeko.

4. Lurzoru Urbanizaezinean:

- a) Lurzorua kalifikatzea. Gainera, lurraldearen antolamendurako tresnetan lurzoru horretarako aurreikusten diren kategoriak jasoko dira, eta, hala badagokio, plangintza orokorrak egokituz jotzen dituen antolamenduko azpikategoriak erantsiko dira.
- b) Lurzoru urbanizaezina antolatzea. Gainera, lurzoru-mota horren berezko kategoria bakoitzean onartuta eta debekatuta dauden erabilerak eta eraikuntzak aurreikusiko dira.
- c) Landa-guneak mugatzea eta gune horiek plangintza bereziaren bidez antolatzeko irizpideak ezartzea.
- d) Lurzoru urbanizaezinean ezarri behar diren zuzkidura eta azpiegitura publikoak zehaztea. Elementu horien oinarrizko parametroak ere adieraziko dira.
- e) Hala badagokio, lurzoru-erreserbak mugatzea, lurzoru-ondare publikoan sartzea.

Horrekin batera beharrezkoa da aipatzea **dokumentuaren edukiera** (62.artikuluan 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa eta aplikagarria den gainontzeko arautegia) eta hurrengo dokumentuetan laburbildu dezakegu:

- a) **Memoria informatiboa eta justifikatiboa.** Plangintza- ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko aukerak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako



alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

- b) **Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena.** Txosten horrek garapen iraunkorraren printzipioan oinarrituta hartu beharreko antolamendua eragin beharko du. Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten horrek, halaber, antolamenduaren xede den eremuaren arrisku naturalen mapa bat izango du. Horrez gain, planean bildutako aurreikuspenetarako lurzoru horiek duten harrera-ahalmenari buruzko azterlan bat gaineratuko da. Azterlan horrek honako txosten hauek hartuko ditu kontuan, aginduzkoak direnean eta legeriari jarraiki prozeduraren ondorengo fase batean egin behar ez direnean soilik:
1. Administrazio hidraulikoak eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide hidrikoak eta jabari publiko hidraulikoaren babesari buruz egindako txostena, araudi sektorialaren arabera aginduzkoa denean.
 2. Kosta-administrazioak itsas/lehorreko jabari publikoaren mugaketari eta babesari buruz egindako txostena, hala badagokio.
 3. Errepideen eta lehendik zeuden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioek planean bildutako aurreikuspenen eraginari buruz egindako txostena. Hirigintza-jardunak zerbitzu-ahalmenean duen eragina aztertuko du txosten horrek.
- c) **Informazioko, egitura-antolamenduko eta antolamendu xehatuko planoak, hala badagokio.**
- d) **Hirigintza arautegia,** bere barnean eraikuntza eta urbanizazio ordenantzak eta katalogoak daudela ulertuz gero.
- e) Hirigintza jarduketaren **ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.**
- f) **Iraunkortasun ekonomikoaren memoria;** bertan hirigintza-jarduenak beharrezkoak diren azpiegituren ezarpenak eta mantentzeak, edo emaitzazko zerbitzuak abian jartzeak eta emateak eraginpean hartutako ogasun publikoetan duen eragina haztatuko da bereziki, baita hirigintza-jardun horrek urbanizazioaren xede den lurzorua kendu ondoren produkzio-erabilitara zuzendutako lurzoruaren azaleran eta egokitzean duen eragina ere.
- g) **Hirigintza-eraikigarritasunaren** gehieneko eta gutxieneko estandarrak betetzearen, biztanleriaren bizitegi-hazkundearen gehieneko zifra (etxebizitza kopuruaren bidez eta lurraldearen antolamendurako tresnetan adierazita) errespetatzearen eta, oro har, hirigintza-plangintza lurralde-plangintzara egokitzearen justifikazioa.

(105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 31. artikuluan. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, EAO 296zk. 2013.urteko abenduak 11, jasangarritasun ingurumena aipatu behar da, "Ingurumen estrategikoaren deklarazioa".)

1.2.4 HAPOAREN IZAPIDETZA ETA ONARPENA

1.2.4.1 Plan Orokorraren Berrikuspenaren idazketa esparru orokorra

Plan Orokorraren izapidetza eta onarpen prozedimendua 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen 90.artikuluan aurreikusita dago, ahaztu barik Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoan



jarraitutako prozedimendua (paralelo eta aldi berean eginda) abenduak 9ko 21/2013 Legean aurreikusita. Arau estatal honek aldi berean, agindu baten egokitzapena ezartzen zuen urte baten barruan. EAEaren kasuan bete ez den araudi autonomikoa indarrean sartu zen urriak 16ko 211/2012 Dekretukoa (EHAA 223 zk. 2012.urteko azaroak 19) mantentzen da, aipatutako legeari buruzkoa aldatetekin eta desorekekin.

Beste alde batetik, Vitoria-Gasteizko Udalaren kasuan, Euskal Herriko Ingurumen Babes Orokorreko Legearen 44.artikuluan aurreikusitasukoarekin bat etorritik, Ingurumen Deklarazio Estrategikoa Eusko Jaurlaritzaren ingurumen organoara dagokio, Plan Orokorraren behin betiko onespena Udalaren eskuetan dagoelako eta ez Arabako Foru Aldundian, beste 7000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan gertatzen den bezala (2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legea, 91. Artikulua).

Aipatutako 21/2013 Legearekin bat etorritik, ingurumen ebaluaketa estrategikoaren izapideak (17. Artikulua eta ondorengoak) hurrengoetan laburtzen da:

- a) Hasteko eskaera.
- b) Aldez aurreko kontsultak, eta ingurumen azterketa estrategikoaren irismena zehaztea.
- c) Ingurumen-azterketa estrategikoa egitea.
- d) Informazio publikoa, eta eragindako administrazio publikoei eta persona interesdunei kontsultak egitea.
- e) Espedientearen azterketa teknikoa.
- f) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.

Aipatu dugun bezala, prozedimendua zalantzak sortzen ditu hirigintza araudian aurreikusitakoarekin eta Plan Orokorraren onarpenarekin. Ingurumen ebaluaketa estrategikoaren araudia Europar Batasunaren xedapenari dagokio, bere zehaztapenak eta kontzeptua ez dator bat hirigintza araudiaren terminologiarekin, hau da, tradizio eta barne zuzenbidearekin. **Ebaluaketa estrategikoaren “Hasierako eskaera” “benetako prozedimenduaren barruan edo Plan onarpenaren barruan dago” (18.artikulua), ezin da garbitasunarekin Plan Orokorra berrikusten den momentukoa baldin bada edo Aurrerapenak osatzen dituen irizpide, konponbide edo helburu orokorren barruan dagoen.** Azken hau logikoena dirudi kontuan hartzen badugu hasierako tramitearen irizpide forma eta hasierako eskaera egiteko informazio garrantzitsua kontuan hartuz gero.

Plan Orokorraren idazketa eta onarpen prozesuan 2/2006 Legearen arabera (90.artikulua) hurrengo pausuetan laburbildu daiteke:

1. **Plan orokorra egiteko erabakia** eta gaian lehia daukaten administrazio publiko guztiei informazioa eskatzea. Aldi berean, **hiritarren parte-hartze programa** onartzen da (2/2006 Legearen 108.artikulua) eta Plangintzarako Aholku kontseiluari jakinarazten zaio.
2. **Aurrerapenaren** lantze prozesuan zehar publikoari erakusten zaio iradokizunak eta aukerak entzuteko (behintzat bi hile iragarkiekin eta inguruko udalei informazioa bidali ondoren). Aurrerapena inguruko udalei eta Vitoria-Gasteizko kontzejuei bidaliko zaie informazioa edukitzeko eta proposatutako antolamendu egiturako oinarritzko alderdien informazio guztia edukitzeko.



3. Udal korporazioak bere kasuan plan orokorraren idazketarako **irizpideak eta helburuak** onartuko ditu, hasierako onespina idazteko erabiliko dira. Aldi berean, ingurumen organoa aurretiko kontsultak egingo ditu eta “Ingurumen ebaluazio estrategikoaren agiria” igorriko da.
4. Ingurumen ebaluaketaren aurrerapen dokumentua ikusita, udalak “**Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren**” agiria egingo du eta informazio publikoa izan ondoren hasierako onspen dokumentazioarekin batera sartuko da.
5. Plan Orokorra idatzi ondoren Udalak beharrezkoa ikustekotan **hasierako onespenearekin** batera, behintzat informazio publiko bezala hilabete egongo da (iragarkiekin) eta administrazio sektorial guztietara komunikatuko zaio (ingurumen kontsultan eskuratutakoak kontuan hartu barik). Aldi berean udal-mugartearen kontzejuei bidaliko zaie.
